

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

## 1 Denborazko berridazketak

### DENBORAZKOAK

EGITURAK	OHARRAK
DutxaTZERAKOAN DutxaTZEAN DutxatuTAKOAN	lehentxeago aldi berean ondoren
Orain dela 10 urtetik hona ez dut ikusi Duela 10 urtetik hona ez dut ikusi BADIRA 10 urte ez dudALA ikusi	Denborazkoa denean, BADIRA...-LA
Bi urte BARRU itzuliko da Bi urteREN BURUAN itzuliko da Bi urteREN BURUAN itzuli zen HEMENDIK bi urteRA itzuliko da HANDIK bi urteRA itzuli zen	BARRU beti etorkizunean -(r)EN BURUAN bai lehenaldian, bai orainaldian HEMENDIK/HANDIK...-RA/-TARA
Haurra esnaTZEAREKIN BATERA jaikitzen dira denak Haurra esnaTZEAZ BATERA jaikitzen dira denak	-TZEAREKIN / -TZEAZ BATERA
Patatak frijitu AHALA jaten ditugu Patatak frijitzen direN HEINEAN jaten ditugu	Ad. jokatu gabe + AHALA -N HEINEAN
LEHENBAILEHEN AHALIK ETA azkarrEN ALBAIT azkarrEN	AHALIK ETA / ALBAIT ...-EN
HILTZEKO ZORIAN nago HILTZEAR nago	arriskuan nago, baina agian libratzen naiz gaixorik nago eta hil egingo naiz
Txiki nintzeLA, askotan jolasten nintzen panpinekin Lapurra sartu zen etxean nengoELA	-LA: egoera baten berri emateko (gehienetan ondoren gauza puntual baten berri emateko)

1. Berrogeita zortzi ordu beharko dira dituen zauriak zeinen larriak diren jakin ahal izateko (buruan)
2. Azken hamar urteotan ez da liburu berririk agertu "euskara-iberoa" teoriari buruz (Badira )
3. Goizeko bostak jo zituenean, kale kantoian sekulako zalapartak entzun nituen (batera)

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

4. Lagunaren gorputzean hotzikara zabaldu zen, irratitik berriak jasotzen zituen heinean (ahala)
5. Zazpi edo zortzi urte izango nituen ene osaba Terralbara itzuli zenean (nintzela)
6. Laster amaituko dute bilera. Ordurako kexak prestatuta izan behar ditugu. (...erako)
7. Hiru urte luzeren buruan amaitu zuten eraikin erraldoia (behar)
8. Goiza argitu baino lehen hartu genuen bizileku berrirako bidea (orduko ekin )
9. Gau erdia artean iritsi gabea zen denak banaka-banaka atera zirenean (baino lehen)
10. Lehenbailehen alde egin behar dugu hemendik, onik irtengo bagara (Ahalik)
11. Goizean herrira jaitsi eta apaizarekin hitz egitekotan egon naiz, baina atzera egin dut azkenean ( \_\_\_\_\_ zorian \_\_\_\_\_ arren, \_\_\_\_\_)
12. Hiru hilabete daramatzagu elkar ikusi gabe (...la)
13. Okindegi ospetsu horretan opiltxoak egitea eta saltzea dena bat izaten da (ahala)
14. Goizetan hamar minutu geroago irtenez gero, trafikoan alde handia egoten da. ( \_\_\_\_\_ gorabeherak \_\_\_\_\_ dakar.)
15. Urteak aurrera doazen heinean heldu egiten da pertsona (ahala)
16. Nola utz daitezke ikasketak bertan behera, horraino iritsi ondoren? (Behin \_\_\_\_\_ ere!)

## **1 Denborazko berridazketak**

### **1.1 ERANTZUNAK: Denborazko berridazketak**

- 1.48 orduren buruan jakin ahal izango da/dugu dituen zauriak zeinen larriak diren.
2. Badira 10 urte ez dela liburu berririk agertu "euskara-iberoa" teoriari buruz.
3. Goizeko bostak jotzearekin batera / jotzeaz batera kale-kantoiaren sekulako zalapartak entzun nituen.
4. Irratitik berriak jaso ahala, lagunaren gorputzean hotzikara zabaldu zen.

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

5. 7 edo 8 urteko umea nintzela / Gaztetxo nintzela ene osaba Terralbara itzuli zen.
6. Bilera amaitzen dutenerako kexak prestatuta izan behar ditugu.
7. Hiru urte luze behar izan zuten eraikin erraldoia amaitzeko.
8. Goiza argitu orduko ekin genion bizileku berrirako bideari.
9. Gau erdia iritsi baino lehenago denak banaka-banaka atera ziren.
10. Ahalik eta lehenen alde egin behar dugu hemendik, onik irtengo bagara.
11. Goizean herrira jaitsi eta apaizarekin hitz egiteko zorian egon (naizen) arren, atzera egin dut azkenean.
12. Badira hiru hilabete ez dugula elkar ikusten.
13. Okindegi ospetsu horretan opiltxoak egin ahala saldu egiten dira.
14. Goizetan hamar minutuko gorabeherak trafikoan alde handia dakar.
15. Urteak aurrera joan ahala heldu egiten da pertsona.
16. Behin horraino iritsita, ikasketak bertan behera uztea ere!

## 2. Nominalizazioak

### NOMINALIZAZIOAK

OROKORRAK	Adibideak	BEREZIAK	Adibideak
Edozein aditz deklina daiteke: -t(z)e... /izan...	-Pozten naiz zu ezaguTZEAZ -Pozten nau zu ezaguTZEAK -Damu dut gezurra esan IZANA -Bera joan IZANAREKIN ados nago	Aditz batzuek nominalizazio jakina dute finko	-saiatu naiz hori ulerTZEN -lan hori egiTEKO prest nago -gonbidatu naute zerbait hartZERA -beraiekin joaTERA behartu naute -Baliteke egia izaTEA
KONTUZ: -TZEAGATIK/ -TZEARRREN -AGATIK/ ARREN	-Izeba ikusTEAGATIK /ikusTEARRREN joango naiz Bartzelonara	UTZI MEREZI AHAZTU NAHI ZAILA/ERRAZA	-Utzi diot sarTZEN -Utzi dut telebista ikusTEN -Utzi diot erreTZEARI

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

	-Berandu iritsi AGATIK garaiz bukatu dut (iritsi ARREN)		-Merezi du joa TEA -Ahaztu zait joa TEA -Ahaztu zait bizikletan ibi TZEN -Zurekin joan nahi dut -Nahi dut zu joa TEA -Zaila da lan horiek egi TEA -Lan horiek zailak dira egi TEN
-TZEAREN/ -TZEKO Batzuetan finko badaude ere, biak posible direnean:	-Lan hori har TZEKO arrazoia dirua izango da (oraindik ez du hartu) -Lan hori har TZEAREN arrazoia dirua izan da (hartu du)	IRITZI	-Ongi deritzot hara joa TEARI -Ongi iritziko nioke hara joa TEARI -Neuk behintzat, bidezko(a) deritzot berari ema TEARI

1. Gaueko ordu horietan taxi barnean zenbait kaletan ibili beharrak beldurra ematen dit (Beldurra diot )
2. Arazoak begi-bistan izan eta begiak ixten dituena zoroa da (Zorakeria )
3. Jendea zutik eta txaloka jarri zuen atzo entzun genuen kontzertuak ( .....rainokoa )
4. Beharbada, norberaren handinahikeria izango da gure gaur egungo egonezinaren sortzailea (Baliteke \_\_\_\_\_ sortzea \_\_\_\_\_)
5. Hainbeste egunez zure berri izan gabe, larritu egin nintzen (ninduen.)
6. Haurtzaroan inongo mugarik ez nion ipini eta horixe da kezkatzen nauena oraingo bere ibilerak ikusita ( izanak )
7. Orain ez daukagu behar adina baliabide enpresa hedatzeko. Urte batzuk beharko ditugu horretarako (Urte batzuk \_\_\_\_\_ izateko.)
8. Ordain dezakezun diru-mailegua eskatu behar duzu, ez gehiago (Ez da komeni )
9. Bai lanerako prestutasunak, bai gaiari buruz erakutsi duen interesak harritu egin naute ( \_\_\_ izan dira harrituta \_\_\_ )

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Saioko partehartzaileen pribatutasuna ez zen errespetatzen eta horrek kalte handia egin ahal zigun (...tzeak )
11. Baina oroz gain altxorra galtzeagatik jota geldituko zen (izanak)
12. Goizeko ordu txikietan ez zen bere arrastorik etxean; horrek sortu zituen gudan kezka eta ezinegona. ( ...k)
13. Guztion ahaleginak bilduta ere, kostako zaigu euskaldunoi geure hizkuntza eta kultura aurrera ateratzea (lanak izan...)
14. Egunsentia zenbait egunetan zoragarria izaten da; ez da ikusi gabe uztekoa (...nez, merezi \_\_\_\_\_)
15. Oso klima nahasia badugu ere, gure meteorologoen ez dute ia inoiz huts egiten iragarpenak egiterakoan. (zaila)

## **2 Nominalizazioak**

### **2.1 ERANTZUNAK: nominalizazioak**

1. Beldurra diot gaueko ordu horietan taxi barnean zenbait kaletan ibiltzeari.
2. Zorakeria da arazoak begi-bistan izan eta begiak ixtea.
3. Jendea zutik eta txaloka jartzerainokoa izan zen atzo entzun genuen kontzertua.
4. Baliteke norberaren handinahikeriak sortzea gure gaur egungo egonezina.
5. Hainbeste egunez zure berri ez izateak/izanak larritu egin ninduen.
6. Haurtzaroan inongo mugarik ipini ez izanak kezkatzen nau oraingo bere ibilerak ikusita.
7. Urte batzuk beharko ditugu enpresa hedatzeko behar adina baliabide izateko.
8. Ez da komeni ordain dezakezun diru-mailegua baino gehiago eskatzea.
9. Bai lanerako prestutasuna, bai gaiari buruz erakutsi duen interesa izan dira harrিতuta utzi nautenak.
10. Saioko partehartzeen pribatutasuna ez errespetatzeak kalte handia egin ahal zigun.
11. Baina oroz gain altxorra galdu izanak utziko zuen jota.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

12. Goizeko ordu txikietan etxean bere arrastorik ez izateak sortu zituen gudan kezka eta ezinegona.
13. Guztion ahalegina bilduta ere, lanak izango ditugu euskaldunok geure hizkuntza eta kultura aurrera ateratzen/ateratzeko.
14. Egunsentia zenbait egunetan zoragarria izaten denez, merezi du ikustea.
15. Oso klima nahasia badugu ere, zaila da gure meteorologoek huts egitea iragarpenak egiterakoan.

### 3. Kausa, kontzesioa, ondoriozkoak

#### KAUSA, KONTZESIOA, ONDORIOZKOAK

##### 1. KAUSA

EGITURA	OHARRAK	ADIBIDEAK
-LAKO -T(Z)EAGATIK -T(Z)EARREN	Galdegai izan daitezke ( <b>zergatik</b> galderaren erantzuna) -tzearren helburuzkoa ere izan daiteke	Ikusi nahi zaitudalako etorri naiz Zu ikuste <b>agatik</b> etorri naiz Zu ikuste <b>arren</b> etorri naiz
-LA ETA/MEDIO/BIDE... -NEZ (GERO)	Normalean esaldiaren lehen partean doaz  -LA ETA egiturak aitzakia kutsua ere har dezake	Ikasi duela <b>bide</b> , lanpostua berak lortu du  Ez da etorriko lan handia duela <b>eta</b>
BAIT- ETA ZEREN (ETA)...BAIT-/-N ZE.... IZAN ERE,	Normalean esaldiaren 2. partean doaz  Izan ere lokailua denez, esaldi/paragrafo hasieran ere maiz erabiltzen da	Banoa, berandu da <b>eta</b> Banoa, berandu <b>baita</b> Banoa, <b>zeren (eta)</b> oraintxe ez banoa zaila izango <b>baitut/dudan</b> garaiz iristea Banoa, <b>ze</b> oraintxe ez banoa zaila izango <b>dut</b> garaiz iristea Banoa; <b>izan ere</b> , oraintxe ez banoa zaila izango <b>dut</b> garaiz iristea

##### 2. KONTZESIOA

EGITURAK	ADIBIDEAK
NAHIZ ETA ..... jokatu gabe/-N ..... jokatu gabe/-N ARREN (ERE) ... BA-....ERE	<b>Nahiz eta</b> hitzaldira joan (de <b>N</b> ), ez du ezer ikasi Hitzaldira joan (de <b>N</b> ) <b>ARREN</b> , ez du

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

<p>... -TA ERE / -RIK ERE ...-ENEAN ERE ... -AGATIK (ERE)</p>	<p>ezer ikasi Hitzaldira joan <b>bada ere</b>, ez du ezer ikasi Hitzaldira joanda <b>ere</b>, ez du ezer ikasi Hitzaldira joaten <b>denean ere</b>, ez du ezer ikasten Hitzaldira joan<b>agatik (ere)</b>, ez du ezer ikasi</p>
---	---

### 3. ONDORIOZKOAK

EGITURAK	ADIBIDEAK
<p>Hain/Hainbeste/Hainbesteko ..... .....NON ... BAIT- /-N .....EZEN ... BAIT-/-N ..... (aditza jokatuta) -T(Z)EAREN ONDORIOZ, ONDORIOZ / HORI DELA ETA/ HORRENBESTEZ / BERAZ / HORTAZ / HORREN ERUZ / HORRI ESKER / HORREGATIK...</p>	<p><b>Hain</b> ondo egin du, <b>non</b> denei gustatu zaien /<b>baitzaie</b> <b>Hain</b> ondo egin du, <b>ezen</b> denei gustatu zaien /<b>baitzaie</b> <b>Hain</b> ondo egin du, denei gustatu <b>zaie</b> Oso ondo egitearen <b>ondorioz</b>, denei gustatu zaie Oso ondo egin du; <b>horri esker</b>, denei gustatu zaie</p>

#### BERRIDAZKETAK:

1. Zuen pintura itsusiegia zen saria lortzeko (Hain \_\_\_\_\_ non\_\_\_\_\_)
2. Ezin nuen agindutako lanik egin, goizean izandako istripuaren ondorioz oso urduri bainengoan (\_\_\_ hain \_\_\_ non\_\_\_)
3. Horrelako harrera beroa egin eta hain jaki goxoak eskainita, nola ez da, ba, etorriko zurera! (...z gero, \_\_\_\_\_ gabe.)
4. Zuek eredu eta ispilu izan behar eta lotsagarri agertzen zarete denon aurrean ( beharrean, )
5. Seme-alabak bideratu nahi nituen baina nork bere bidea hartu du gure aholkuei jaramonik egin barik ( \_\_\_\_\_gatik\_\_\_\_\_ aintzakotzat \_\_\_\_\_)
6. EAEn ekonomia %4 haziko da; hala ere, langabezia ez da %14tik jaitsiko (Nahiz eta )
7. Haren ibilera sosegatuak sasoian aurrera zihoala salatzen bazuen ere, aurpegiko orin ugariak eta irribarre errazak gaztetzen zuten. (Nahiz eta )
8. Ezin hobeto pasatu ditut oporrak. Ondorioz, indarberrituta itzuli naiz lanera. (Hain \_\_\_\_\_ ezen\_\_\_\_\_)
9. Oso zaila da lana lortzea. Horregatik, asko eta asko etsita daude. (

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

\_\_\_\_...enez, \_\_\_\_ amore eman \_\_\_\_)

10. Har ezazu euritakoa, agian euria egingo du eta ( eginda ere.)

11. Hamaika aldiz esanagatik guk esandakoari ez zion jaramonik egin ( \_\_\_\_\_ ba... \_\_\_\_\_ aintzakotzat \_\_\_\_\_)

12. Esan zaio makina bat aldiz baina horrek berearekin jarraitzen du. Niri hala iruditzen zait, behintzat ( \_\_\_\_...gatik \_\_\_\_\_ zait niri.)

13. Itsasontzia uzten duen azkena kapitaina da, erantzukizuna berea delako ( \_\_\_\_\_...enez gero \_\_\_\_\_ uzten.)

14. Batzuek hau diote, besteek bestea; alabaina, sendagileek lortu dute gaixoa aurrera ateratzea (Esanak \_\_\_\_\_ esker \_\_\_\_\_)

15. Behin eta berriro gezurretan harrapatu bazuen ere, ez zitzaion inoiz pertsona maltzurra zenik iruditu (\_\_\_\_...gatik, ez zuen \_\_\_\_\_)

### **3 Kausa, kontzesioa, ondoriozkoak**

#### **3.1 ERANTZUNAK: kausa, kontzesioa, ondoriozkoak**

1. Hain itsusia zen zuen pintura non ez baitzuen(zuen) saria lortu /ezin baitzuen (zuen) saria lortu.
2. Goizean izandako istripuaren ondorioz hain urduri nengoen,non ezin nuen/bainuen agindutako lanik egin.
3. Horrelako harrera beroa egin eta hain jaki goxoak eskaintzen dituzunez (dizkiozunez) gero, ezin da egon zurera etorri gabe.
4. Zuek eredu eta ispilu izan beharrean, lotsagarri agertzen zarete denon aurrean.
5. Seme-alabak bideratu nahi izanagatik, nork bere bidea hartu du gure aholkuak aintzakotzat hartu barik.
6. Nahiz eta EAEn ekonomia %4 hazi, / haziko den, langabezia ez da %14tik jaitsiko.
7. Nahiz eta haren ibilera sosegatuak sasoian aurrera zihoala salatu, /salatzen zuen, aurpegiko orin ugariak eta irribarre errazak gaztetzen zuten.
8. Hain ondo pasa ditut oporrak, ezen indarberrituta itzuli bainaiz/naizen lanera.
9. Lana lortzea oso zaila denez, askok eta askok amore eman dute.

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.



EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Har ezazu euritakoa, euria eginda ere.

11. Hamaika aldiz esan bagenion ere, guk esandakoa ez zuen aintzakotzat hartu.

12. Makina bat aldiz esanagatik, horrek berearekin jarraitzen duela iruditzen zait niri.

13. Erantzukizuna kapitainarena / berea denez gero, bera /kapitaina da azkena itsasontzia uzten.

14. Esanak esan, sendagileei esker atera da aurrera gaixoa.

15. Behin eta berriro gezurretan harrapatuagatik, ez zuen inoiz pertsona maltzurtzat hartu/jo.

#### 4 Zehar-galderak

##### ZE HAR-GALDERAK

EGITURA	ADIBIDEA
Galdera izan baina galdera ikurrik ez badu, -N darama	Galdetu dit zer egingo du daN Ez dakit noiz joango naizeN Ez dakit joango naizeN Zein polita deN!
Aditza jokatu gabe, beti etorkizuneko zentzuan -IK edo -A eraman dezake <b>Inoiz ez -tzea/-tzeko</b>	Ez dakit zer egin Ez daukat nora joan/nora joana/nora joanik Ez duzu zertan joan/joana/joanik * Ez duzu <b>zertan</b> etorri <b>beharrik</b> <b>GAIZKI</b> * Ez duzu <b>zer egiterik</b> <b>GAIZKI</b>
Bai ala ez tankerako zehar-galderetan, <b>-NETZ</b> erabil daiteke	Ez dakit joango naize <b>NETZ</b> = Ez dakit joango naize <b>N ALA EZ</b>
EA = galdera azpimarratzeko OTE = galdera erretolikoa, zalantza EZ OTE = susmoa	Galdetu dit EA joango zareN / EA etortzen deN! Konponduko OTE dugu arazoa? Ez dakit EZ OTE duen diruzorroa galdu Beldur naiz EZ OTE duen diruzorroa galdu (Susmatzen dut galdu duela)

##### Berridazketak:

1. Zoritxarrez, ez daukagu umeak nork zaindu (...nik.)
2. Etxetik alde egin, alde egin du, baina orain ez du inon bizilekurik. ( non)

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

3. Ez daukagu tresna hauek erabiltzen irakatsiko digunik (nork)
4. “Biharko afarirako ardo dexentea ekar dezakek?” galdetu zidaten lagunak atzo (...n.)
5. Aizan, neska, ez zekinat hori dena ordaintzeko lain izango dugun (...netz.)
6. Ez dizkiozu kontu zahar horiek aipatu behar, badakizu berak ahaztuta dituela eta. (\_\_\_\_\_ zertan \_\_\_\_\_ jakinda.)
7. Zor guztiak ordaindu badizkiozue, ez daukazue kezkatzeko arrazoirik. ( zertan )
8. Ez daukazue paper guztiak aurkeztu beharrik ( zertan)
9. Ogi gogorra ez bazen ez zegoen jateko beste ezertxo ere. ( \_\_\_\_\_ ezean \_\_\_\_\_ zer \_\_\_\_\_)
10. Esan gabe doa erantzukizun zehatzagoak dirusari oparoagoa izaten duela (Ez dago zertan \_\_\_\_\_ dagokiola.)
11. Noiz egin behar ditugu gure zereginak? Uholdeak etortzen zaizkigunean? ( \_\_\_noiz \_\_\_ zain \_\_\_?)
12. Bizilekua aukeratzerakoan, norberari eta familiari ahalik eta ondoen egokitzen zaiona izateak ukatu ezinezko garrantzia du. (Ezin da ukatu \_\_\_\_\_ nolako garrantzia \_\_\_\_\_)
13. Hi, Amaia, ikusan leihoa hertsirik dagoenentz! ( \_\_ez!)
14. “Ezin liteke lan hori atzera idatzi?” Horixe zioen berak ere. ( zioen berak ere.)
15. Noiz etorriko ote da? Horren zain nago. ( zain nago.)
16. “Zer egin dezaket zuek duzuen zama arintzen laguntzeko?” galdetu zien lagunak. (zuten)

#### **4 Zehar-galderak**

##### **4.1 ERANTZUNAK: Zehar-galderak**

1. Zoritxarrez, ez daukagu umeak zainduko dizkigunik.
2. Etxetik alde egin, alde egin du, baina orain ez du non bizi(rik).
3. Ez daukagu tresna hauek erabiltzen nork irakatsiko digun.
4. Gaurko afarirako ardo dexentea ekar nezakeen galdetu zidaten lagunak atzo.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

5. Aizan, neska, ez zekinat hori dena ordaintzeko lain izango dugunentz.
6. Ez dizkiozu kontu zahar horiek zertan aipatu, berak ahaztuta dituela jakinda.
7. Zor guztiak ordaindu badizkiozue, ez daukazue zertan kezkatu/kezkatua/kezkaturik.
8. Ez daukazue paper guztiak zertan aurkeztu.
9. Ogi gogorra izan ezean ez zegoen zer jan.
10. Ez dago zertan esan(a/ik) erantzukizun zehatzagoari dirusari oparoagoa dagokiola.
11. Gure zereginak egiteko uholdeak noiz etorriko (zaizkigun) zain egon behar dugu?
12. Ezin da ukatu bizilekua aukeratzerakoan, norberari eta familiari ahalik eta ondoen egokitzen zaiona izateak nolako garrantzia duen.
13. Hi, Amaia, ikusan leihoa hertsirik dagoen ala ez!
14. (Ea) Ezin zitekeen lan hori atzera idatzi zioen berak ere.
15. (Bera) Noiz etorriko (den) zain nago.
16. Lagunak galdetu zien (ea) zer egin zezakeen zuten zama arintzen laguntzeko.

### 5 Konpletiboa, ustea

#### KONPLETIBOA, USTEA

EGITURAK	OHARRAK	ADIBIDEAK
-LA -NIK -N	- <b>NIK</b> bakarrik aditz nagusia ezezka badago eta menpeko perpausak zalantza edo egia ez dela adierazteko (JAKIN, SUSMATU, GOGORATU eta AHAZTU aditzek ez dute <b>inoiz</b> hartzen -NIK) - LA ala -NIK hautatu garbi ez badago, - <b>LA hautatu</b> - <b>N</b> partikulak ere zalantza adierazten du	- <b>Ez du esan</b> berak egingo due <b>LA</b> (berak egingo du baina ez du esan) - <b>Ez du esan</b> berak egingo due <b>NIK</b> (ez dakigu egingo duen ala ez) - <b>Ez da egia</b> berak esan due <b>LA</b> - <b>Ez du ukatu</b> berak esan due <b>LA</b> - Ez dakit berak esan due <b>N</b>

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

-LA/-NA	Aditz nagusiak <b>ziurtasun osoa</b> adierazten badu, -LAREN ordezkari -NA ere erabil daiteke	- Ez dago zalantzarik berak egin dueLA - Ez dago zalantzarik berak egin dueNA
-LAKOAN -LAKOAN EGON	ustea adierazteko	- Izugarrizko kolpea eman zion lapurra ze <b>LAKOAN</b> (zeLA PENTSATUZ) - Garaiz bukatuko dugu <b>LAKOAN nago</b>
-LAKO + IZENA -N + IZENA -LAKOA/ARI/AREN...	-LA partikularen ondoren aditzaren ordezkari izena badator - Deklinatzeko, -LAKO erabili	- Garaiz bukatuko dugu <b>N</b> <b>ustea</b> dut/dugu <b>LAKO</b> <b>ustea</b> dut - Garaiz bukatuko dugu <b>LAKOAK</b> itxaropena piztu du taldean
OMEN EI BIDE	OMEN=EI=entzun dut, esaten da BIDE=badirudi	Eguraldi ona egingo <b>OMEN</b> du / <b>Entzun dut</b> eguraldi ona egingo duela - Eguraldi ona egingo <b>BIDE</b> du/ <b>Iruditzen zait</b> eguraldi ona egingo duela

BERRIDAZKETAK:

1. Bizimodu berria aurkitzeko asmotan hartu omen zuen Ameriketarako bidea. (...lakoan)
2. Gure umeei, musikarako joera izanda ere, ez lituzkete utzi beharko beste lanak. Ni, behintzat, horretan nago ( \_\_\_ ba... \_\_\_\_\_ ez dut uste \_\_\_\_\_ )
3. Lapurra zela pentsatu zuen. Izugarrizko makilakada eman zion. (...lakoan.)
4. Ez zenekiten? Patxi apaiz egitekotan dabil! ( ala?)
5. Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango direla diote jakitunek (omen)
6. Azken bolada honetan, uste hau jabetu da ikertzaileen artean: gizakia barazkijalea zen hasieran ( \_\_\_ ustea \_\_\_\_\_ honetan.)
7. Mundu honetan jende gogorrak egiten du aurrera; uste hori izan zuen gaztetan eta zahartzaroan. ( \_\_\_ ustea \_\_\_\_\_ baita \_\_\_\_\_ )
8. Musika-kaxa hartan herri-kanta alemaniar bat zegoen, nonbait. (Badirudi )
9. Aitak esan zien berari tokatu zitzaiola eta berak zeukala joan beharra, bestela sugea haserretu egingo zela. ( \_\_\_ zienez, \_\_\_\_\_ baitzen.)

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Diotenez, akerraren pertsonifikazioa da Matxin izena. (omen)
11. Istripuan bi lagun hil omen dira. (berria zabaldu da.)
12. Enparantza, kale eta tabernak ez dira jendez leporaino egongo, antza.  
(Ez dirudi \_\_\_\_\_ dituenik \_\_\_\_\_)
13. Ez daukagula biharko bukatu beharrik esan dute. ( \_\_\_ omen \_\_\_\_\_ zertan \_\_\_\_\_)
14. Badakizu derrigor egin behar duzula (...na.)
15. Zuzendariak biharko bilera deituko bide du (...la.)
16. Zu atzo pertsonal buruarekin hizketan aritu omen zinen (zurrumurrua zabaldu da.)
17. Aurten etxea erosteko modua izango dugulakoan gaude (\_\_\_ ahal \_\_\_ ustea \_\_\_\_\_)

## **5 Konpletiboa, ustea**

### **5.1 ERANTZUNAK: Konpletiboak, ustea**

1. Bizimodu berria aurkituko zuelakoan hartu omen zuen Ameriketarako bidea.
2. Gure umeez, musikarako joera badute ere, ez dut uste beste lanak utzi beharko lituzketenik.
3. Izugarritzko makilakada eman zion lapurra zelakoan.
4. Ez zenekiten Patxi apaiz egitekotan dabilela, ala?
5. Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango omen dira.
6. Ikertzaileen artean, gizakia hasieran barazkijalea zen /zelako ustea jabetu da azken bolada honetan.
7. Mundu honetan, aurrera jende gogorrek egiten duen/duelako ustea izan zuen gaztetan, baita zahartzaroan ere.
8. Badirudi musika-kaxa hartan herri-kanta alemaniar bat zegoela.
9. Aitak esan zenez, berari tokatu zitzaion eta berak zeukan joan beharra, bestela sugea haserretu egingo baitzen.
10. Akerraren pertsonifikazioa omen da Matxin izena.
11. Istripuan bi lagun hil diren / direlako berria zabaldu da.
12. Ez dirudi jendeak leporaino beteko dituenik enparantza, kale eta tabernak.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

13. Ez omen daukagu biharko zertan bukatu(rik).
14. Badakizu derrigor egin behar duzuna.
15. Badirudi zuzendariak biharko bilera deituko duela.
16. Zu atzo pertsonal buruarekin hizketan aritu zinen /zinelako zurrumurrua zabaldu da.
17. Aurten etxea erosi ahal izango dugulako/dugun ustea dugu.

## 6 KOORDINATUAK

### KOORDINATUAK

EGITURAK	OHARRAK	ADIBIDEAK
EZ EZIK  Ad.+EZIK  IZAN EZIK EZ BESTE SALBU	normalean + ERE  EZIK = EZEAN  salbuespena adierazten dute	- Lagunekin <b>EZ EZIK</b> , gurasoekin ere joaten da oportretan - Lana bukatu <b>EZIK/EZEAN</b> ez gara hemendik aterako - Nik <b>IZAN EZIK</b> denek egin zuten - Ni(k) <b>EZ BESTE</b> guztiek egin zuten - Nik <b>SALBU</b> , denek egin zuten
ERE BAITA...ERE ETA... ERE BAI HALABER, -TZEAZ GAIN, GAINERA, ERA BEREAN, OROBAT, BEREBAT...	ERE soila esaldi osoan txertatzen da BAITA... ERE/ ETA...ERE BAI aditz laguntzailearen elipsia egiten denean Hobe da lokailuren bat erabiltzea EREren kokapena nahasia bada	- Lagunekin joaten da oportretan eta gurasoekin <b>ERE</b> gustatzen zaio bidaiatzea - Lagunekin joaten da oportretan, <b>BAITA</b> gurasoekin <b>ERE</b> - Lagunekin joaten da oportretan, <b>ETA</b> gurasoekin ERE BAI - <b>Halaber</b> , esango nuke gero eta gazte gehiagok hautatzen dutela Lanbide Heziketa
BESTERIK BESTE...-RIK BAINO BAIZIK	ezezko esaldietan erabiltzen dira	- Zu ikusi <b>BESTERIK ez</b> nuen nahi - Zinemara joan <b>BESTE</b> ikuskizun <b>IK ez</b> nuen nahi - Zu <b>BAINO</b> ez zaude zerrendan - Zu <b>BAIZIK</b> ez zaude

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

		zerrendan - Ez du lagunekin egin, gurasoekin <b>BAIZIK/ BAINO</b>
--	--	---

### BERRIDAZKETAK:

1. Eztabaidetan nahiz solasaldi gozoetan beti ere apaltasuna adierazten zuen (baita)
2. Garai bateko idazleek eleberri mardulak idatzi ohi zituzten; baita oraingo zenbaitek ere (ezik)
3. Telebista kate honetan lelokeriak entzun daitezke eta besteetan ere bai (ez ezik)
4. Aurten adiskideek ez didate oparirik ekarri; nahigabeak ekarri dizkidate ( ...nak \_\_\_\_ baino.)
5. Domingok bi pentsakizun bakarrik zituen buruan: dirua eta apustuak. ( ez zituen )
6. Ez ziren hamarrera iritsiko une hartan tabernan zeuden bezeroak. (baino)
7. Gure txirrindulari ezagunak ez ziren tropelaren aurrean tinko eta erne ibili, atzean eta erdi lotan baizik. (beharrean)
8. Gizonezkoak ez ziren egurretara joaten eta ez zituzten mendiko belardiak segatzen. ( \_\_\_\_ gain, uko \_\_\_\_\_)
9. Horixe bakarrik behar genuen gure ametsak betiko galtzeko! (Besterik \_\_\_\_\_ gal \_\_\_\_\_!)
10. Nahikoa zuen eskutitzak irakurtzea amaren estuasuna eta nahigabea sumatzeko (besterik)
11. Amore ematen ez baduzu, hemendik ez bada handik izorratuko zaitu hurrengoan. (\_\_\_\_ ezean \_\_\_\_ nahiz \_\_\_\_\_)
12. Irribarrea zabaldu zitzaion eta baita begiak bizi-bizi jarri ere; ideia dibertigarriren bat bururatu zitzaiola ematen zuen. (\_\_\_\_ ez ezik \_\_\_\_\_ bezala.)
13. Guk egindakoaren ondoren, afaritxo bat baino ez bada ere, ordain bezate. (\_\_\_\_\_bederen \_\_\_\_\_...la.)
14. Berak, eta berak bakarrik gainera, erabaki behar duen zerbait da hori. (baino)

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

15. Ainhoa da dirua jartzeko falta den bakarra (izan ezik)
16. Museo horretan umeeek hainbat gauza ikusten dute, eta ikasi ere bai.  
(gain)
17. Behar zuenean ez nion lagundu. Horixe da nire pena bakarra. (beste)

## **6 KOORDINATUAK**

### **6.1 ERANTZUNAK: Koordinatuak**

1. Eztabaidetan beti ere apaltasuna adierazten zuen, baita solasaldi gozoetan ere.
2. Garai bateko idazleek ez ezik, oraingo zenbaitek ere eleberri mardulak idatzi ohi dituzte.
3. Telebista kate honetan ez ezik, besteetan ere lelokeriak entzun daitezke.
4. Aurten adiskideek ekarri dizkidatenak ez dira opariak izan, nahigabeak baino.
5. Domingok bi pentsakizun baino/besterik/baizik ez zituen buruan: dirua eta apustuak.
6. Hamar baino ez ziren izango / Hamar baino gutxiago izango ziren une hartan tabernan zeuden bezeroak.
7. Gure txirrindulari ezagunak tropelaren aurrean tinko eta erne ibili beharrean, atzean eta erdi lotan ibili ziren.
8. Gizonezkoak egurretarara ez joateaz gain, uko egiten zioten mendiko belardiak segatzeari.
9. Besterik ez genuen behar genuen gure ametsak betiko gal zitezten!
10. Eskutitzak irakurri besterik ez zuen amaren estuasuna eta nahigabea sumatzeko.
11. Amore eman ezean, hemendik nahiz handik izorratuko zaitu hurrengoan.
12. Irribarrea zabaldu ez ezik, begiak bizi-bizi jarri ere egin zitzaizkion, ideia dibertigarriren bat bururatu balitzaio bezala.
13. Guk egindakoaren ondoren, afaritxo bat bederen ordain dezatela.
14. Berak baino ezin du hori erabaki.
15. Ainhoak izan ezik, denok jarri dugu /denek jarri dute dirua.
16. Museo horretan umeeek hainbat gauza ikusteaz gain, ikasi (ere) egiten dute.
17. Behar zuenean lagundu ez izana beste penarik ez dut.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.



## 7 Harridura, adierazkortasuna

### HARRIDURA ETA ADIERAZKORTASUNA

EGITURAK	ADIBIDEAK
<p><b>Balorazioa:</b> - Adj/adb/I+adj:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ZEIN...-N!</li> <li>• BAI...-LA!</li> </ul> <p>-Izena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• HAU/HAUEK/...(BAI)/(izan ad.)...-NAK!</li> <li>• NOLAKO/A ZER/ A ZER NOLAKO ....-N/NAK!</li> </ul>	<p>Zein polita (deN)!</p> <p>Zein ederki (egin duzuN)!</p> <p>Zein lan ederra (egin duzuN)!</p> <p>Bai polita (deLA)!</p> <p>Bai ederki (egin duzuLA)!</p> <p>Bai lan ederra (egin duzuLA)!</p> <p>Hau (bai) lana (egin duzuNA)!</p> <p>Horiek (dira) hankak, (horiek)!</p> <p>Nolako hankak (dituzun)/(dituzunak)!</p> <p>A zer eguraldia duguN/duguNA!</p> <p><b>A zer eguraldi txarra GAIZKI</b></p>
<p><b>Harridura:</b> -TzEA ERE! -Nola(tan)....! (-N gabe) -Nola liteke....-tzea! -Hara non...-N!/Horra norekin ...-N! -Norekin eta ...-kin... /Nora eta ...-ra... (-N gabe) -... EZ...-NEAN -</p>	<p>Umeari jostailua kentZEA ERE! NOLA(TAN) kendu diozu jostailua umeari?</p> <p>NOLA LITEKE umeari jostailua kentZEA! HARA NORK kendu dioN jostailua umeari!</p> <p>NORI ETA umeARI kendu (dio) jostailua!</p> <p>Umea negarrez hasi EZ deNEAN! (la-ia negarrez hasi da, baina ez da hasi)</p>
<p><b>Apustuak:</b> - Lepoa egingo nuke...-LA - Egingo nuke ...-LA - BAIETZ/EZETZ ... (aditza jokatu gabe)</p>	<p>Lepoa egingo nuke zuk irabaziko duzula Egingo nuke zuk irabaziko duzula BAIETZ zuk irabazi!</p>
<p><b>Egoera:</b> - EZIN...-AGO - .... BAINO ...-AGO - Ez dago.....-rik ....-rik</p>	<p>Ezin urduriago nabil Urduri baino urduriago nabil Ez dago txirrindularirik bera baino azkarragorik</p>
<p><b>Baieztapena:</b> - NOLA EZ ..... BA! - ....-KO EZ ....., BA! - JAKINA .... -LA! / ....., JAKINA!/, BAI HORIXE! - HORIXE .....-LA!</p>	<p>Nola ez da ba festara joango! Festara joango ez da, ba! Jakina festara joango dela! Festara joango da, jakina! /,bai horixe! Horixe festara joango dela!</p>
<p><b>Desioa:</b> - EA .....-N! (aditzean etorkizuna EZ) - subj+N (1. perts.)</p>	<p>Ea bihar lagunak itzultzen diren! Itzul gaitzeN bihar!</p>

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

- subj+LA (3. perts.)  
- -KO AHAL ...!

Itzul daitezeLA lehenbailehen!  
Bihar itzuli**KO** AHAL dira!

Berridazketak:

1. Nola pentsa dezakezu gaueko orduotan kalera ateratzea? ( ere!)
2. Ez zen laztan eta igurtzi gutxi jasotakoa haur hura! (Hamaika)
3. Nire arreba ezkontuta ikusi nahi dut. Zer ez nuke egingo! (Edozer )
4. Leihatila atzean zeuden txoro haiek zure arazoa konponduko zutela pentsatzea ere! (Nola \_\_\_\_\_ zuri \_\_\_\_\_)
5. Zu bezalako zahar batek gazteek egin ezin dutena egitea pentsatzea ere! (Nola)
6. Onartu beharra dago produktu asko eta asko telebistak saltzen dituela bere zuloxtatik (Nola ukatu \_\_\_\_\_!)
7. Nola liteke bizitza osoan aurreratutako sosak era horretan xahutzea! (\_\_\_\_\_ ere!)
8. Sekulako pena hartu du berria jakin duenean (Hori \_\_\_\_\_ !)
9. Berriz ere etxeko lanak egin gabe etorriko da. Horretan ez izan zalantzarik. (Baietz)
10. Hain azkar etsita, ez dakit ba zeure burua gobernatzeko gauza izango ote zaren! (ona zaude zu)
11. Zer itxura daukan tarta horrek! (Hori)
12. Ezin urduriago dago eta ezinezkoa da bera lasaitzea. (\_\_\_\_\_ baino \_\_\_\_\_...tzerik.)
13. Estuasun hartan erokeria bat egin ez zuenean! (\_\_\_\_\_ zorian \_\_\_\_\_!)
14. Andoni ezagutzen ote dudan? Horixe ezagutzen dudala! (\_\_\_\_\_, ba!)
15. Etorri egin zait eta barkamena eskatu dit (Horra non \_\_\_\_\_!)
16. Bi mutil sartu ziren. Bata morroskoa bazen, bestea ez zen gutxiago. (\_\_\_\_\_ zein baino \_\_\_\_\_)
17. Hori ezin da ulertu ( kristaurik )

## **7 Harridura, adierazkortasuna**

### **7.1 ERANTZUNAK: Harridura, adierazkortasuna**

1. Gaueko orduotan kalera ateratzea pentsatzea ere!

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

2. Hamaika laztan eta igurtzi gutxi jasotakoa zen haur hura!
3. Nire arreba ezkontuta ikusi nahi dut. Zer ez nuke egingo! (Edozer )
4. Nola pentsa zenezakeen /pentsatu zenuen leihatila atzean zeuden txoro haiek zuri arazoa konponduko zizutela!
5. Nola pentsa dezakezu zu bezalako zahar batek gazteek egin ezin dutena egitea!
6. Nola ukatu produktu asko eta asko telebistak saltzen dituela bere zulotxotik!
7. Bizitza osoan aurreratutako sosak era horretan xahutzea ere!
8. Hori pena hartu duena berria jakin duenean!
9. Baietz berriz ere etxeko lanak egin gabe etorri!
10. Hain azkar etsita, ona zaude zu zeure burua gobernatzeko!
11. Hori itxura tarta horrek daukana!
12. Urduri baino urduriago dago eta ez dago bera lasaitzerik.
13. Estuasun hartan erokeria bat egiteko zorian egon zen!
14. Andoni ezagutuko ez dut, ba!
15. Horra non etorri zaidan eta barkamena eskatu!
16. Bi mutil sartu ziren, zein baino zein morroskoagoa.
17. Ez dago kristaurik hori ulertuko duenik!

## 8 Erlatibozkoak

### ERLATIBOZKOAK

- **Azalpen orokorrak:**

- Erlatibozko perpausen ezaugarri nagusia hau da: bi perpaus lotu nahi ditugu bi esaldietan **errepikatzen den hitzaren bitartez**. Batzuetan hitz hori agerikoa da eta beste batzuetan susma daiteke zein den zentzuari begira *Liburu bat irakurri dut; oso ona iruditu zait* LIBURU hitza dago bi esaldietan eta beraz: *Irakurri duduN LIBURUA oso ona iruditu zait*

- Kontua da askotan errepikatzen den hitz horrek funtzio desberdinak betetzen dituela perpausa bakoitzean. Orduan, **nola deklinatu?** Beti nagusiaren arabera:

*Liburu bat irakurri dut; bertako irudiak oso argigarriak iruditu zaizkit*  
Bigarren esaldian LIBURU hitza NONGO kasuan dagoenez:

*Irakurri duduN LIBURUKO irudiak oso argigarriak iruditu zaizkit*

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

- BAINA: euskaraz ezin ditugu esaldi guztiak josi -N erabilita. Desagertzen den kasuak beti nonbait geratu behar du, adibidez aditzean. Horregatik, -N egiturarekin josteko, konbinazioak honelakoa izan behar du:

- Bi perpausetan DEKLINABIDE KASU BERA:

*Mutil batekin etorri naiz gaur, ba berarekin ezkonduko naiz:*  
**Gaur etorri naizEN mutilAREKIN ezkonduko naiz**

- Menpeko perpausoko hitza NOR, NORI edo NORK kasuan egotea:

*Ikasle bati utzi diot liburua; berarekin geratuko naiz arratsaldean eta itzuliko dit*  
**Liburua utzi diodaN ikasleAREKIN geratuko naiz arratsaldean eta itzuliko dit**

- Bi hitzak LEKUZKO KASUETAN egotea, zentzua garbi geratzen bada, behintzat:

*Azalpena liburu batean irakurri dut; liburu horretatik atera ditut irudiak*  
**Azalpena irakurri dudan LIBURUTIK atera ditut irudiak**

- Gainerako kasuetan, ez dugu erlatiboa erabiliko, edo esaldia aldatuko dugu, edo bestela, ZEIN...BAIT-/N egitura erabiliko dugu:

*Film bati buruz hitz egin genuen atzo; ez dute zineman emango datorren astera arte*

Atzo **aipatu genuen filma** ez dute zineman emango datorren astera arte  
Film hori **zeini buruz** atzo hitz egin genuen, ez dute zineman emango datorren astera arte

EGITURAK	ADIBIDEAK
-N + izena -NA/ -NAK/ -NARI....	Oparitu didateN lepokoa asko gustatu zait Lehenengo iristen deNARI emango diot oparia
-TAKO/-RIKO + izena -TAKOA/-RIKOA/... (aspektu burutua adierazten du)	Atzo ikusitako filma luzeegia zen nire gusturako Atzo ikusitakoari luzeegi deritzot Ondo hasirikoa ondo amaitzen da
aditza jokatu gabe (aspektu burutua adierazten du)	Atzo <b>ikusitako filma</b> luzeegia zen nire gusturako
zein... bait- / -n ZEIN mugagabean deklinatu ohi da, baina sing. edo plur. ere deklina daiteke	Oporretan Salamankan izan nintzen, <b>nongo</b> txorizoa benetan famatua de <b>N/BAIT</b> a Nire irakasle bat <b>zeinekin / zeinarekin</b> izugarri ikasi nuen <b>N/BAI</b> nuen, oso gogoan dut orain lanean ari naizela Bartzelonako senideekin, <b>zeini /zeintzuei</b> loteria egokitu zitzaie <b>N/BAIT</b> zitzaien, Karibera joango gara oporretan

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

BADA(GO).....-NA EZ DA(GO).....-NIK EZAGUTZEN DUT .....-NA/-NIK	Bada jendea oporrak ikasteko erabiltzen dituENA Ez dago hori ez dakieNIK Ezagutzen dut ume bat hiru urterekin irakurtzen dakieNA Ezagutzen dut itsasoa inoiz ikusi ez dueNIK
Galdetz... (-N), erakusl.....	Umeek zer ikusi, hura ikasi Umeek zer ikusten duteN, hura ikasten dute Norekin topatu, harekin jartzen da hizketan Zer gustatu, horixe erosten du beti

### Berridazketak:

1. Nobela guztiak mintzatzen dira nola edo hala gaurko Euskal Herriari buruz (Ez dago)
2. Protagonistak ihes egin nahi du eta ez dauka nora joanik. Hori da nobelak kontatzen digun istorioa. ( norbaiten istorioa )
3. Auzokide guztiek jakingo dute guk atzo etxean egindakoa (Ez \_\_\_\_\_...nik.)
4. Institutuko zuzendariak azaldu dien asmoa aho batez onartu dute ikasle guztiek. (Ez dago \_\_\_\_\_...tako \_\_\_\_\_)
5. Lagunek zuei kontatutako xeblekrekeriekin zeharo harrিতuta geratu zineten. ( \_\_\_\_\_ kontatu \_\_\_\_\_ utzi \_\_\_\_\_)
6. Gogora beza nire aurkakoak nire asmoak bete egiten ditudala. Horrelakoxea naiz ni. ( \_\_\_\_\_ dezala \_\_\_\_\_ dituzten \_\_\_\_\_)
7. Urria: urte-sasoi horretan artoak burutu eta enarak buztantzen dira. (Urria da )
8. Biztanle guztiek dakite mediku berria etorriko zaiela. (Ez dago )
9. Erabat aspertuta bukatu dute ezagututako lagun berrieekin. ( \_\_\_\_\_ eginda \_\_\_\_\_...n \_\_\_\_\_)
10. Gure artean norbaitek zuk baino gutxiago lan egin eta gehiago irabazten du. ( duenik.)
11. Nik egin dut galdera. Orain norbaitek erantzun dezala (Norbaitek \_\_\_\_\_...ri.)
12. Pertsona batzuek ezin dute nahi dutena egin (Bada )
13. Nor ikusi, harekin geldituko da hizketan (Ikusten )

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

14. Herri eder bat ezagutzen dut handik gertu; bertara eramango zaitut oporretan. (...n)
15. Pertsona batzuei gustatzen zaie lan eta lan aritzea (Badira )
16. Etengabe hizketan ari zara; isil zaitez! ( zaren )
17. Harekin ezkondu nahi zuen (...tzeko )
18. Batzuek goikoen esanetara makurtzeko joera izaten dute (Batzuek, zer agintzen )
19. Legea lege delarik, auzia eskualdeko auzitegira pasako da eta bertan epaiketa egingo zaio. (non )
20. Hona hemen ene semerik maitatuena. Berarengan jarri ditut ene hobespen guztiak. ( jarri baititut )

## **8 Erlatibozkoak**

### **8.1 ERANTZUNAK: Erlatibozkoak**

1. Ez dago nobelarik gaurko Euskal Herriari buruz nola edo hala mintzatzen ez denik. / Ez dago gaurko Euskal Herriari buruz nola edo hala mintzatzen ez den nobelarik.
2. Ihes egin nahi (duen) eta nora joanik ez daukan norbaiten istorioa da nobelak kontatzen diguna/ kontatzen digu nobelak.
3. Ez dago auzokiderik guk atzo etxean egindakoa jakingo ez duenik.
4. Ez dago institutuko zuzendariak azaldutako asmoa onartu ez duen ikaslerik.
5. Lagunek zuei kontatu zizkizueten xelebrekeriek zeharo harrituta utzi zintuzteten.
6. Gogora dezala nire aurkakoak nire asmoak bete egiten dituzten horieta(ri)koa naizela ni.
7. Urria da artoak burutu eta enarak buztantzen diren urte-sasoia.
8. Ez dago biztanlerik mediku berria etorriko zaiela ez dakienik.
9. Asper eginda bukatu dute ezagutu zituzten lagun berriekin.
10. Gure artean bada zuk baino gutxiago lan egin eta gehiago irabazten duenik.
11. Norbaitek erantzun diezaiola orain nik egin dudan galderari.
12. Bada nahi duena egin ezin duenik.
13. Ikusten duen edozeinekin geldituko da hizketan.
14. Handik gertu ezagutzen dudan herri eder batera eramango zaitut oporretan.

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

15. Badira (pertsonek) lan eta lan aritzea gustatzen zaienak.

16. Etengabe hizketan ari zaren hori, isil zaitez!

17. Harekin ezkontzeko gogoia zuen.

18. Batzuek, zer agintzen duten goikoek, haien esanetara makurtzeko joera izaten dute.

19. Legea lege delarik, auzia eskualdeko auzitegira pasako da, non epaiketa egingo baitzaio/zaion.

20. Hona hemen ene semezik maitatuena, zeinarengan/zeinengan jarri baititut ene hobespen guztiak.

## 9 MODUZKOAK

### MODUZKOAK

- Egitura jakin batzuen arteko bereizketak:

BEZALA/BEZALAKO/BEZALAKOA(K)

Film hau aurreko eguneko bezalako **izan da**

Film hau aurreko eguneko bezala **egin dute/eman dute...**

Aurreko eguneko bezalako **filma** ikusi dugu

-N BEZALA/-NA BEZALA

Alkandora hau pentsatu (nuen) bezalako da (alkandora bakarra dago)

Alkandora hau aurreko eguneko ikusi nuena bezalako da (bi alkandora alderatzen ari dira)

Jonen autoa zuk esan duzun bezala pintatu dute (auto bakarra)

Jonen autoa zuk esan duzuna bezala pintatu dute (beste auto batekin alderatzen ari dira)

-N MODUKOA/-NAREN MODUKOA

Nobela hau kontatu didazun modukoa da (nobela bakarra dago)

Nobela hau kontatu didazunaren modukoa da (beste nobela bat dago)

BEZALA/LEGEZ

Oso parekoak dira, baina kasu hauetan:

Beti bezala / Betiko legez

Esan bezala / esandako legez

MODUAN/ANTZERA

Oso parekoak dira, baina MODUANekin -TAKO eta -TZEKO erabil daiteke eta ANTZERArekin ez

Zure modukoa da / zure antzekoa da

Zuk esandako moduan egin du / Zuk esandakoaren antzera egin du

Zuk erabiltzeko modukoa da / -

[Ainhoa Ezeiza](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

### ANTZERA/ANTZEAN

Gaixo**en antzera** portatzen ari da (baina ez dago gaixo)

Gaixo **antzean** ikusi dut gaur (gaixo dagoen inpresioa hartu dut)

-NEZ / -LA(RIK)

Nik dakidanez, etorriko da (hori entzun dut, hori esan dit)

Nik dakidala, etorriko da (susmatzen dut, irudipen hori dut)

-N HEINEAN /-N NEURRIAN / AHALA

Patatak frijitzen ditugun **neurrian/heinean** jaten ditugu

Patatak frijitu **ahala** jaten ditugu

-TZEN /-Z / -TA\_ -RIK/-LA(RIK)

Asko idatzi**Z** ikasten da idaz**TEN** (-Z nola?, -TZEN zertan?)

Agur esane**Z** joan da (aldi berean esan eta joan, edo agur hainbatetan esan du)

Agur esan**DA** joan da (agur esan eta joan da)

Etxean nengoe**LA**(RIK), lapurrak sartu zitzaizkidan

Zer egin ez dakida**LA** nabil

Txiki nintzela, euria eginda ere hondartzara joaten nintzen udan

### BERRIDAZKETAK:

1. Tximista kiskalgarria alboan erori zitzaiola zirudien. Horrelaxe hartu zuen berria Joxek. (ba...)
2. Zabaleta baseritik urruntzen zen neurrian bizimodu nagiagoa izaten zuen gure gazteak. (Zenbat )
3. Lotsaren lotsaz, esan behar nuena jakin gabe inguratu nintzen lagunengana. ( \_\_\_ nekiela \_\_\_ lagunei.)
4. Mikel aberatsa balitz bezala agertzen da lagunen aurrean. ( aberatsarena )
5. Gorputzaldiaren arabera zen aitonaren umorea azken hilabeteetan. (Nolako )
6. Sendagileak bere burua zaintzeko esan zionetik ez daki zer jan, ezta zer edan ere. Horrelaxe dabil. ( dakiela )
7. Errugbian indarra da ezaugarri nagusia; beste zenbait kiroletan, berriz, ez. ( ez bezala )
8. Diotenez, eskuinaz bezala ematen dio baloiari ezkerrez ere ( \_\_\_\_ bezain \_\_\_ omen \_\_\_\_)
9. Aldi batean egon zen zain, baina laguna ageri ez zenez, luze iritzita, hoska hasi zen batetik bestera ibiliaz. (...ela.)

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.



EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Saia zaitetze ahal bezain ondo egiten (ahalik eta)
11. Haserre zegoela zirudien. Horrelaxe hartu ninduen etxean. ( antzean )
12. Emaztea hil zitzaionetik zer egin jakin gabe ematen ditu egunak. ( ...ela )
13. Oheratu egin da gibelandi hori; badirudi berari ez zaiola ezer gertatu. ( bezala.)

## **9 MODUZKOAK**

### **9.1 ERANTZUNAK: Moduzkoak**

1. Tximista kiskalgarria alboan erori balitzaio bezala hartu zuen berria Joxek.
2. Zenbat eta urrunago Zabaleta baserritik, (hainbat) (eta) /orduan eta bizimodu nagiagoa izaten zuen gure gazteak.
3. Lotsaren lotsaz, zer esan (behar nuen) ez nekiela inguratu nintzaien lagunei.
4. Mikelek aberatsarena egiten du lagunaren aurrean.
5. Nolako gorputzaldia, halakoa zen aitonaaren umorea azken hilabeteetan.
6. Sendagileak bere burua zaintzeko esan zionetik zer jan, ezta zer edan ere ez dakiela dabil.
7. Errugbian, beste zenbait kiroleetan ez bezala, indarra da ezaugarri nagusia.
8. Eskuinaz bezain ondo ematen omen dio baloiari ezkerrez ere.
9. Aldi batean egon zen zain, baina laguna ageri ez zenez, luze iritzita, hoska hasi zen batetik bestera zebilela.
10. Saia zaitetze ahalik eta ondoen egiten. /Egin ezazue ahalik eta ondoen.
11. Haserre antzean hartu ninduen etxean.
12. Emaztea hil zitzaionetik zer egin ez dakiela ematen ditu egunak.
13. Oheratu egin da gibelandi hori, berari ezer gertatu ez balitzaio bezala.

## **10 KONPARATIBOAK**

- Alderaketak egiteko ez dira beti konparatiboak erabiltzen:
- Zuk ez duzu berak duen trebetasuna
- Bere aldean, zuk ez duzu trebetasun handirik

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

- Berak zuk ez bezalako trebetasuna du
- ...
- Konparatiboetan, gaztelaniaz ez bezala, bereiztu egin behar da ZENBAT eta ZENBATEKO, NOLAKO:
  - *Laranja asko ditut / Indar handia dut* bereizten dugun bezala:
  - Zuk **adina laranja** ditut nik / Zuk **adinako indarra** dut nik
- Batzuetan, ZENBATEKO/NOLAKO egiturak "kalitatea" edo "maila" adierazteko erabiltzen da:
  - Zuk bezalako autoa dut = marka bera, kolore bera...
  - Zuk adinako autoa dut = zurea bezain ona, zurea bezain kalitate onekoa
- Hona hemen laburpen taula:

	adj./adb.	izena (zenbat) aditza	izena (zenbateko, nolako)
termino bakarra	Ez da HAIN azkarra Ez da HAIN azkar etorri Ez da HAIN auto azkarra	Ez du HAINBESTE tresna Ez du HAINBESTE azeleratzen	Ez du HAINBESTEKO potentzia/ <b>rik</b> Ez du HAIN potentzia HANDIA Ez da HAINBESTEKO autoa
berdintasuna	Zure autoa nire BEZAIN azkarra da Zure autoa nirea BEZAIN azkar ibiltzen da Zurea BEZAIN auto azkarra dut	Nireak ADINA tresna ditu zureak Nireak ADINA azeleratzen du zureak <b>ADINA / BEZAINBAT/ BEZAINBESTE / BESTE/ HAINBAT</b>	Zureak ADINAKO potentzia du Zureak BEZAIN potentzia HANDIA du Zurea ADINAKO autoa da nirea ADINAKO / BESTEKO...
ezberdintasuna	Zure autoa azkarrAGO da (nirea BAINO) Zure autoa azkarrAGO dabil nirea BAINO Zuk BAINO auto azkarrAGOa dut nik	Tresna GEHIAGO ditu nireak zureak BAINO Zureak GUTXIAGO azeleratzen du nireak BAINO	Zureak <b>BAINO</b> potentzia <b>HANDIAGO</b> du nireak Zureak <b>BAINO GEHIAGOKO</b> potentzia du nireak

- Bestelakoetarako, erne adibide hauei:
  - La mayoría de los estudiantes han aceptado la propuesta

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

- Ikasle GEHIENEK onartu dute proposamena (**eta ez: ikasleen gehiengoak**)
  - Bera da gelako ikaslerik trebeena = ikasleETAN trebeena = ikasleETATIK trebeena = ikasleETARIK trebeena
  - Ez dago gelan ikaslerik bera bezain treberik = Ez dago gelan bera bezain ikasle treberik = Ez dago gelan bera baino ikasle trebeagorik

BERRIDAZKETAK:

1. Hogei urterekin zuek baino lan gogorragoak egiten genituen ( aldean )
2. Ikusgarriak benetan zuen altzari berriak; modako aldizkarietan ikusten direnak bezalakoak dira. (bezain)
3. Irakurketa hau interesgarria da, baina beste hori askoz interesgarriagoa. (adina )
4. Norberak egiteak hainbat nekatzen du alferrak noiz egingo duen zain egoteak (nekagarria)
5. Liburu kontuan, kalterik handiena zenbait txoriburuk idazten duten guztia sinestea litzateke (ez legoke)
6. Janari onak jatea adina gustatzen zaio ardo finak edatea (baino gutxiago)
7. Hamar mila pezeta gastatu edo ez gastatu, orain bezain txiro izango gara urte amaieran. ( \_\_\_ gorabehera \_\_\_\_\_ ez gara)
8. Hamaika urte genituenean begirada xaloa eta orain etsipenezkoa; nik hura nahiago. (Nahiago dut \_\_\_\_\_ baino.)
9. Testua luzatu egin behar zuela zioen. Orrialde haiekin ezin zela liburu bat osatu. ( \_\_\_adina ez zirenez, \_\_\_\_\_)
10. Zure gurasoak oso modernoak dira. Nireak ez dira hain modernoak. ( aldean )
11. Aitor oso trebea da. Mikel ez hain trebea. ( adinako )
12. Gizakirik zoriontsuena osasuna, maitasuna eta dirua dituen omen da. (Ez \_\_\_\_\_ baino.)
13. Emazte triste ala alargun alaia? Nik bigarrena nahiago ( baino.)
14. Zuk kotxe handia duzu. Nik, berriz, nahiko txikia. (aldean)
15. Atzo haize zakarra zebilen. Gaur, berriz, ez. (adinako )
16. Besteek nola jaten zuten ikustea zuen amonak gogoko, ez hainbeste berak

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak  
mahaian eserita jatea (gogokoago)

17. Emakume hori aberatsetan aberatsena da. (Ez \_\_\_\_\_ baino \_\_\_\_\_)

18. Berak uste baino makalago dabil ebakuntzaren ondoren (bezain)

19. Bi etxe erosi dituela? Horrenbeste diru irabazten al du, ba? (erosteko)

## **10 KONPARATIBOAK**

### **10.1 ERANTZUNAK: Konparatiboak**

1. Hogei urterekin zuen aldean lan gogorrak egiten genituen. (gogorragoak, EZ)

2. Zuen altzari berriak, modako aldizkarietan ikusten direnak bezain ikusgarriak dira benetan.

3. Irakurketa hau ez zait beste hori adina interesatzen.

4. Norberak egitea bezain nekagarria da alferrak noiz egingo duen zain egotea.

5. Liburu kontuan, zenbait txoriburuk idazten duten guztia sinestea baino kalte handiagorik ez legoke.

6. Janari onak jatea ez zaio ardo finak edatea baino gutxiago gustatzen.

7. Hamar mila pezeta gorabehera, urte amaieran ez gara orain baino txiroago izango.

8. Nahiago dut hamaika urte genitueneko begirada xaloa, oraingo etsipenezkoa baino.

9. Orrialde horiek liburu bat osatzeko adina ez zirenez, testua luzatu egin behar zuela zioen.

10. Zure gurasoak, nireen aldean, oso modernoak dira.

11. Mikelek ez du Aitorrek adinako trebetasunik.

12. Ez omen da gizaki zoriontsuagorik osasuna, maitasuna eta dirua dituenak baino.

13. Nik alargun alaia nahiago (dut) emazte tristeak baino.

14. Zuk, nirearen aldean, kotxe handia duzu.

15. Gaur ez dabil atzo adinako haizerik.

16. Besteek nola jaten zuten ikustea gogokoago zuen amonak berak mahaian eserita jatea baino.

17. Ez da emakume hori baino aberatsagorik.

18. Ez dabil berak uste bezain sendo ebakuntzaren ondoren.

19. Bi etxe erosteko adina diru irabazten al du, ba?

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

## 11 DEKLINABIDEA, ADITZA

Atal honetan ezin sailkapenik eman. Kontua da deklinabidea aldatzean ohikoa dela aditza aldatzea eta alderantziz. Hona hemen maiz egiten diren aldaketa batzuk:

- Zarata arraro horrengatik kezkatu **naiz** / Zarata arraro horrek kezkatu **nau**
  - Berdin BELDURTU, HARRITU, HASERRETU... aditzekin
- **Nire** autoa hartu **du** / Autoa hartu **dit (niri)**
- Hori arazo kezka garria **dela uste dugu** / Arazo kezka garritzat **dugu/daukagu**
- Irakaslea agurtu **zuen** / Irakasleari agur **egin zion** (eta antzeko lokuzioak: dantzatu **naiz ni** / dantzan **egin dut nik**, borrokatu **naiz ni**/ borrokan **egin dut nik...**)
- Lanean **hasiko naiz** / Lanari **ekingo diot**
- **Nire iritziz**, umea han uztea guztiz desegokia da / Umea bertan uzteari guztiz desegoki(a) **deritzot/irizten diot**
- **Nik** egin behar dut lan hori / **Niri dagokit** lan hori egitea
- Iturginari **esker** konpondu zuten arazoa / Iturginari **zor diote** arazoa konpondu **izana**
- Oraintxe bukatu dugu lana / Bukatu **berri** dugu lana

Beste horrelako asko dago. Tankera honetako berridazketak oso erne egin behar dira deklinabidea eta aditza ongi taxututa uzteko (sing/plur, nor/nork...)

## BERRIDAZKETAK

### DEKLINABIDEA, ADITZA, DEKLINAB-ADITZA (I)

1. Seme hura mutil handia zen, baina herritar askok erdi txorotzat zeukaten ( iritziz )
2. Bere jokamoldea zuzentzen ez zuen bitartean ezin esan zitekeen elkartekide leiala zenik ( \_\_\_\_\_ ezean \_\_\_\_\_...tzat.)
3. Umea negar-malkotan zegoen. (zerizkion)
4. Nire mendizaletasunaren jatorria umetan aitonaarekin egin ohi nituen joan-etorrietan dago. (datorkit)
5. Batak besteari "Aurkituko ote dugu konponbidea?" galdetuz amaitu zuten solasaldi luzea (elkarri)
6. Aspaldian dabil hori lanean (berria.)
7. Zenbaitek droga legeztatzea ez du bidezkotzat jotzen (deritzo.)
8. Esango nuke txakur hau ez dela hori bezain gaiztoa. (ematen.)
9. Neska lirain horrek zoratu egingo luke bat bere edertasunaz. (izanda, )

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Agintariek hartu behar dituzte erabaki zorrotz horiek eta ez beste inork.  
(hartzea)
11. Miren eta Ane bata bestearen antzekoak omen ziren txikitandik. (antza)
12. Unibertsitateko irakasle bati esker murgildu nintzen ikerketa zirrargarri hartan (zor)
13. Hamaika dira gurasoek eta irakasleek bultzatuta aurrera atera direnak  
(esker)
14. Isiltasun oro esan ez diren hitzez dago osatua. (osatzen dituzte.)
15. Fruituak, gazta eta arrain errea eramaten nizkion. Ordainetan ahuntz-esnea eta ahate-arrautzak ematen zizkidan. (truke)
16. Zorrak kitatzeko bakoitzak milioi bat pezeta jarri behar izan genuen.  
(...na)
17. Jon igandean ezkondu zen, baina guk astelehenera arte ez genuen jakin  
(berri.)
18. Liburu horren euskal bertsioa zorioneko itzultzaile horrek egin du. (duzu.)
19. Bere urtebetetzeko opari gisa huskeria bat eman zioten. (...tzat.)
20. Oraindik korrikalari horri uste baino gehiago falta zaio munduko errekorra ontzeko. (falta du)
21. Hurrek amarekin euskaraz eta aitarekin arabieraz hitz egiten dute.  
(mintzatzen dira.)
22. Tabernak ordu txikietan irekita egoteari desegokia deritzot. (Ez dut uste )
23. Luze gabe iritsiko dira Bartzelonako gure lagunak, beren fardel eta guzti.  
(...tear)

#### DEKLINABIDEA, ADITZA, DEKLINAB-ADITZA (II)

1. Motorzale eta txirrindulari askok ez dakite kaskoa ez erabiltzea arriskutsua dela. (dakarrela.)
2. Lagunek dirua ordaintzera behartu ninduten. (...arazi )
3. Liburugintzan hasi zirenean bakoitzak hiru milioi jarri zituen. (\_\_\_\_ ekin \_\_\_\_...na \_\_\_\_)
4. Zuk proposatutakoa ondo iruditzen zait. (deritzot.)
5. Erretzea denontzat da kaltegarria. (denoi)

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

6. Gure ikastetxera etorri den irakasle berriak asko daki informatikaz.  
(jantzia)
7. Patxi ez ezik, Olatz eta Julene ere etorriko dira. (...tzekoak)
8. Bidegabekeriek eta gizalegez ez jokatzekoak tristatu egiten naute. (\_\_\_\_  
dira \_\_\_\_ sortarazten \_\_\_\_)
9. Arazoa ez onartzea da irtenbidea atzeratzearen eragile. (du)
10. Gaixotasunaren diagnostikoa garaiz egitea garrantzitsua da adituen  
ustez. (irizten)
11. Une honetan bide horretatik ez goaz inora. (horrek)
12. Halako batean hasi ziren guk agindutako lanetan.  
(\_\_\_\_ ekin \_\_\_\_ ...n \_\_\_\_)
13. Irakasleok eman behar dizkiezue ikasleei azalpenak eta ez gurasoek.  
(Irakasleoi)
14. Gurasoek aginduta etorri zara medikuarenera. (...arazi)
15. Lanean gogor ari denak begirunea merezi du. (zor)
16. Ez zen erraza izango ni berriro zoritxarreko toki hartan gaueko ordu  
txikietan ikustea. (Nekez)
17. Ez nuen bihotzondoko makala hartu zu egoera triste hartan ikusi  
zintudanean! (zidan)
18. Zuei esker hartu izan dugu atseden orain arte. (\_\_\_\_ zor \_\_\_\_ izana.)
19. Era horretako arazo bat antzeman ondoren, haurdunaldiarekin jarraitu  
ala ez gurasoen esku gelditzen da. (\_\_\_\_ gurasoei \_\_\_\_ erabakitzea.)

## **11 DEKLINABIDEA, ADITZA**

### **11.1 ERANTZUNAK: Deklin/aditza, I eta II**

#### **DEKLINABIDEA, ADITZA, DEKLINAB-ADITZA (I)**

1. Seme hura mutil handia zen, baina herritar askoren iritziz erdi txorua zen.
2. Bere jokamoldea zuzendu ezean, ezin har zitekeen elkartekide leialtzat.
3. Umeari negar-malkoak zerizkion.
4. Mendizaletasuna umetan aitonaekin egin ohi nituen joan-etorrietatik datorkit.  
(Nire EZ)
5. Konponbidea aurkituko ote duten elkarri galdetuz amaitu zuten solasaldi  
luzea.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

6. Hori ez da lanean hasi berria.
7. Zenbaitek droga legeztatzeari bidegabekeria deritzo.
8. Txakur honek ez du horrek bezain gaizto(a) ematen.
9. Neska lirain hori hain ederra izanda, zoratu egingo luke bat.
10. Agintariei dagokie erabaki zorrotz horiek hartzea, eta ez beste inori.
11. Miren(ek) eta Anek elkarren antza omen zuten txikitandik.
12. Unibertsitateko irakasle bati zor diot ikerketa zirrarragarri hartan sartu izana.
13. Hamaika dira gurasoei eta irakasleei esker aurrera atera direnak.
14. Isiltasun guztiak esan ez diren hitzek osatzen dituzte.
15. Fruituak, gazta eta arrain errea eramaten nizkion, ahuntz-esnearen eta ahate-arrautzen truke.
16. Zorrak kitatzeko milioi bana pezeta jarri behar izan genuen.
17. Jon igandean ezkondu zen, baina guk astelehenera arte ez genuen izan horren berri.
18. Liburu horren euskal bertsioa zorioneko itzultzaile horrek egina duzu.
19. Huskeria bat eman zioten bere urtebetetzeko oparizat. (...tzat.)
20. Oraindik korrikalari horrek uste baino gehiago falta du munduko errekorra ontzeko.
21. Haurrak amarekin euskaraz eta aitarekin arabieraz mintzatzen dira.
22. Ez dut uste tabernak ordu txikietan irekita egotea egokia denik.
23. Iristear daude Bartzelonako gure lagunak, beren fardel eta guzti.

## **DEKLINABIDEA, ADITZA, DEKLINAB-ADITZA (II)**

1. Motorzale eta txirrindulari askok ez dakite kaskoa ez erabiltzeak arriskua dakarrela.
2. Lagunek dirua ordainarazi zidaten.
3. Liburugintzari ekin ziotenean, hiruna milioi jarri zituzten.
4. Zuk proposatutakoari ondo deritzot.
5. Erretzea denoi egiten digu kalte.
6. Gure ikastetxera etorri den irakasle berria oso jantzia dago informatikan.
7. Patxi ez ezik, Olatz eta Julene ere etortzekoak dira.
8. Bidegabekeriak eta gizalegez ez jokatzekoak dira tristura sortarazten didatenak.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.



EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

9. Arazoa ez onartzeak irtenbidea atzeratzea eragin du.
10. Gaixotasunaren diagnostikoa garaiz egiteari garrantzitsu(a) irizten diote adituek.
11. Une honetan bide horrek ez garamatza inora.
12. Halako batean ekin zieten guk agindu genituen/ genizkien lanei.
13. Irakasleoi dagokizue ikasleei azalpenak ematea, eta ez gurasoei.
14. Gurasoek etorritarazi zaituzte medikuarenera.
15. Lanean gogor ari denari begirunea zor zaio.
16. Nekez ikusiko naute ni berriro zoritzarreko toki hartan gaueko ordu txikietan.
17. Ez zidan bihotzondoko makala eragin zu egoera triste hartan ikusi izanak!
18. Zuei zor dizuegu orain arte atsedean hartu izana.
19. Era horretako arazo bat antzeman ondoren, gurasoei dagokie haurdunaldiarekin jarraitu ala ez erabakitzea.

## 12 BALDINTZAZKOAK

- BA- partikularekin aditz asko erabil daitezke, ez soilik Baldintza aditza:
  - Etorri bada, hemen izango da
  - Etortzen bada, ondo pasatzen dugu
  - Etortzen bada, ondo pasako dugu
  - Etorri bazen, kontzertua ikusi zuen
  - Etortzen bazen, ondo pasatzen genuen
  - Etortzen bazen, ondo pasako genuen
  - Etorriko **bada**, aldeztatik dei dezala (Etorri nahi/behar badu)
  - Etorriko **bazen**, aldeztatik deitu behar zuen (Etorri nahi/behar bazuen)
  - Etorriko balitz, ondo pasako luke
  - Etorri (izan) balitz, ondo pasako zukeen / zuen
  - Goizean **etorri (izan) balitz, orain** hementxe **egongo litzateke / legoke**
  - Etor badaiteke, etorriko da
  - Etor baliteke, esango liguke
  - Etor bazitekeen, etortzen zen
  - Etor bazitekeen, etorriko zatekeen/zen
  - **Etor badadi**, zurekin hitz egingo du (etortzen bada eta nahiko probablea da)
  - **Etor baledi**, zurekin hitz egingo luke (etorriko balitz)
- Baldintzazko beste egitura batzuk:
  - -Z GERO, EZEAN/EZIK: aditza jokatu gabe erabiltzeko

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

- Etorriz gero, ondo pasako zenuke
- Etorri ezean, zurekin haserretuko dira
- -TZEKOTAN: asmoa adierazteko, -KO BA-+indik egituraren parekoa:
  - Gainditzekotan asko ikasi beharko dugu = Gainditu nahi badugu /Gainditu**KO baDUGU**
- BALDIN (ETA)...ba-: baldintza datorrela iragartzeko partikula:
  - Zurekin joango naiz BALDIN (eta) bide osoa ixilik egiten BAduzu

BERRIDAZKETAK:

1. Norbait saritu nahi izanez gero, Xabi hautatuko nuke. (...kotan)
2. Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriz gero, oso pozik geratuko nintzateke. (ekarriko)
3. Nahiago nuke hemendik aurrerakoak zuek zeuek guri kontatzea. (kontatuko)
4. Neba-arrebak berehala hasten ziren borrokan, aita aurrean ez bazegoen. (\_\_\_\_\_ ezean \_\_\_\_ ekiten \_\_\_\_\_)
5. Aholkurik eskatzekotan, ni eskarmentua duenarengana joango nintzateke.
6. (\_\_\_\_nahi \_\_\_\_\_ nuke.)
7. Dena ondo egin nahi badugu, hobe dugu zu alde batera uztea. (\_\_\_\_...tekotan \_\_\_\_\_ \_\_\_\_\_ba...\_\_\_\_\_)
8. Zuei horrelakorik gertatuz gero, ez zenukete atarramentu onik aterako, duzuen eskarmentu urriatik. (\_\_\_\_\_ ba... \_\_\_\_\_-eta.)
9. Eskertuko nizuke zerbitzu arinagoa eskaintzeko iradokizunen bat ematea (emango)
10. Bisitarik ez badiozu egiten, horixe haserretuko dela! (\_\_\_\_\_ ezean, \_\_\_\_\_ ez \_\_\_\_\_!)
11. Maitek eta Mertxek zu hori egiten ikusiz gero, errieta egingo lizukete. (ikusiko)
12. Makuluak kenduz gero, elbarri horrek ez daki bakarrik ibiltzen. (\_\_\_\_\_ ba...\_\_\_\_\_gauza.)
13. Lanean hasi eta berehala erosi behar duzu etxebizitza; bestela, xoxak xahutzen hasiko zara. (\_\_\_\_\_ berritan \_\_\_\_\_ ezean \_\_\_\_\_)

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

14. Inoiz, zirkunstantzia hauetan bezala, bereganako ardurarik onartzen zuenean, bere arbuioa nabarmentzeko zen. (Baldin)
15. Liburua bai, utziko dizut baina datorren asterako itzuli egin behar didazu! (itzul...)
16. Egia bakarra duk, hemen txahal ona hazten ez bada, ederra egingo didatela aurten ere. (hazi)
17. Oinez itzultzekotan, nahiago dut hemendik ez mugitu. ( bagara)

## **12 BALDINTZAZKOAK**

### **12.1 ERANTZUNAK: Baldintzazkoak**

1. Norbait saritzekotan, Xabi hautatuko nuke.
2. Olentzerori aurten eskatu diodan guztia ekarriko balit, oso pozik geratuko nintzateke.
3. Nahiago nuke hemendik aurrerakoak zuek zeuek guri kontatuko bazenizkigute.
4. Aita aurrean egon ezean, neba-arrebek berehala ekiten zioten borrokari.
5. Aholkurik nahi izanez gero, nik eskarmentua duenarengana joko nuke.
6. Dena ondo egitekotan, hobe dugu zu alde batera uzten bazaitugu.
7. Zuei horrelakorik gertatuko balitzaizue, ez zenukete atarramentu onik aterako, duzuen eskarmentu urria dela-eta.
8. Eskertuko nizuke zerbitzu arinagoa eskaintzeko iradokizunen bat emango bazenit.
9. Bisitarik egin ezean, haserretuko ez da, ba!
10. Maitek eta Mertxek zu hori egiten ikusiko bazintuzte, errieta egingo lizukete.
11. Makuluak kentzen bazaizkio /badizkiozu, elbarri hori ez da bakarrik ibiltzeko gauza.
12. Lanean hasi berritan etxebizitza erosi ezean, sosak xahutzen hasiko zara.
13. Baldin eta inoiz, zirkunstantzia hauetan bezala, bereganako ardurarik onartzen bazuen, bere arbuioa nabarmentzeko zen.
14. Liburua bai, utziko dizut baina datorren asterako itzultzekotan!

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

15. Egia bakarra duk, hemen txahal ona hazi ezean /ezik, ederra egingo didatela aurten ere.

16. Oinez itzuliko bagara, nahiago dut hemendik ez mugitu.

### 13 AHALERA

- Aditz laguntzailea jarri behar izaten da gehienetan:

	INDIKATIBOA	aldaketa	AHALERA
NOR	joan naiz joan nintzen	irregularra da, hobe ikastea	joan NAITEKE joan NINTEKEEN joan NINTEKE
NOR-NORK	eraman zaitut eraman zintudan	-U-ren ordezk -ZAKE-	eraman zaitZAKEt eraman zintZAKEdan eraman zintZAKEt
NOR-NORI-NORK	eman dizkit eman zizkidan	-I-ren ordezk -IEZA-+-KE-	eman diEZAzkiDAKE eman zIEZAzkidaKEen eman LIEZAzkidaKE
NOR-NORI	erori zaizkit erori zitzaizkidan etorri zatzaizkit etorri zintzaizkidan	ZAI-ren ordezk, DAKI-+-KE ZITZAI-ren ordezk, ZEKI-+-KE- edo LEKI-+-KE Orokorrean, TZAI-ren ordezk -KI-+-KE (aldaketa fonetikoren bat egin behar izaten da: zinkizki -> zEnkizki-)	eror DAKIzkiDAKE eror ZEKIzkidaKEen eror LEKIzkidaKE etor zaKIzkidaKE etor ZENKIzkidaKEen etor ZENKIzkidaKE

Hipotetikoa lehenalditik dator, baina 3. pertsonako Z-, L- bihurtzen da eta lehenaldiko -N galtzen du

- -TZEA EGON / -TZEA EDUKI, UKAN egitura eta ahalera:

Berez ez dira guztiz baliokideak. TZEA EGON/UKAN egitura adierazkorragoa, indar enfatiko handiagoa du eta batzuetan aginduetarako edo "errietan egiteko" (gaitzespena adierazteko) erabiltzen da:

- Baduzu lan gehiago egiterik! (lan gehiago egin behar duzu)
- Klasera etortzea zeneukan! (klasera etorri behar zenuen)
- Ez daukazu sartzerik (ez dizut uzten sartzen)
- Kasu batzuetan, dena den, nahiko antzekoak dira:
  - Badaukat sartzerik? / Sar naiteke? biak baimena eskatzeko erabiltzen ditugu

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

### BERRIDAZKETAK:

1. Ez dago Erdi Aroko garai ilunetara jo beharrik jauntxoek bidegabekeriak aurkitzeko. (gabe)
2. Azkenean, ezin izan zaituztegu itsasora eramanez. (...terik )
3. Ez duzu urrutira joan beharrik egun ederrak gozatzeko. (\_\_\_\_ barik \_\_\_\_\_ goza \_\_\_\_\_)
4. Herri hura txiki-txikia zen eta bertan ezin sal zitekeen merkantziarik. (saltzerik.)
5. Lotsaren lotsaz, Mikelek ezin izan zuen jendaurrean hitz egin. (\_\_\_\_-eta, \_\_\_\_\_ gauza \_\_\_\_\_)
6. Ezin zioten ukatu horrelako txikikeriarik hainbeste urtez lagun eta bizikide izandakoari. (\_\_\_\_ uka \_\_\_\_\_ izan \_\_\_\_\_)
7. Trebezia eta gogoia behar dira horrelako ur handietan sartzeko. (Ez dago \_\_\_\_\_ gabe \_\_\_\_\_)
8. Sari hori lortu nahi duzula? Bada, zozketa horretan parte har dezakezu! (daukazu!)
9. Bere erantzuna gogorra izan zitekeen, halakorik esaten bazion. (Gogor erantzun )
10. Nolatan ez zintzaizkieten bisitan joan eta horrela arratsalde-pasa egin? (Bisitan joan )

## **13 AHALERA**

### **13.1 ERANTZUNAK: Ahalera**

1. Erdi Aroko garai ilunetara jo gabe jauntxoek bidegabekeriak aurki daitezke /ditzakegu / aurkituko ditugu.
2. Azkenean, ez dugu zuek itsasora eramaterik izan.
3. Urrutira joan barik egun ederrak goza ditzakezu.
4. Herri hura txiki-txikia zen eta bertan ez zegoen merkantziarik saltzerik.
5. Lotsa zela-eta, Mikel ez zen jendaurrean hitz egiteko gauza izan.
6. Ez(in) ziezaioketen uka horrelako txikikeriarik hainbeste urtez lagun eta bizikide izan zenari.
7. Ez dago trebezia eta gogorik gabe horrelako ur handietan sartzerik.
8. Sari hori lortu nahi baduzu, zozketa horretan parte hartzea daukazu!
9. Gogor erantzun ziezaiokeen, halakorik esaten bazion.

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

10. Bisitan joan zenkizkieketen eta horrela arratsalde-pasa egin.

## 14 MODU SUBJUNTIBOA

MODU SUBJUNTIBOAREN ERABILERA NAGUSIAK:

- Helburua, zertarako: subj+N
  - Denok zerbait egin behar dugu arazoa konpontzeko / konpon dezaguN
- Zehar-agindua, zer: subj+LA
  - Esan dizut etortzeko / etor zaitezela
- Agindua, exhortazioa: 1. pertsona+N, 3. pertsona +LA (edo agintera 🤪)
  - Azter dezaguN gaia / GatozeN harira
  - Azter dezaLA berak / DatorreLA lehenbailehen / Etor dadiLA lehenbailehen
  - Azter BEZA berak / BETOR lehenbailehen / Etor BEDI lehenbailehen
- Nominalizazioak, subjektu desberdina denean: gehienetan -N
  - Hobe da lana buka dezazuN
  - Saiatu naiz hori ulertzen (nik) / Saiatu naiz hori uler dezazuen (zuek)
- Beste erabilera batzuk (ez oso maiz):
  - Etor BAdadi, benetan poztuko gaitu
  - Etor dadiNEAN, abisatu mesedez
- Aditzaren aldetik, AHALERA bezala baina -KE gabe:

	INDIKATIBOA	aldaketa	AHALERA
NOR	joan naiz joan nintzen	irregularra da, hobe ikastea	joan NADILA eskatu dit Berarekin joan NENDIN diru asko eskaini zidan
NOR- NORK	eraman zaitut eraman zintudan	-U-ren ordezkari -ZA-	Autoa ekarri dut lehenbailehen eraman zaitZAdan Eraman zintZAdaLA eskatu zenidan orduan
NOR- NORI- NORK	eman dizkit eman zizkidan	-I-ren ordezkari -IEZA-	Bere etxera joango naiz liburuak eman diEZAzkidan Bere etxera joan nintzen liburuak eman zIEZAzkidan

[Ainhoa Ezeizak](#) prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen  
Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

NOR- NORI	erori zaizkit erori zitzaizkidan etorri zataizkit etorri zintzaizkidan	ZAI-ren ordez, DAKI- ZITZAI-ren ordez, ZEKI- Orokorrean, TZAI-ren ordez -KI- (aldaketa fonetikoren bat egin behar izaten da: zinkizki -> zEnkizki-)	Ongi eutsiko diet eror ez DAKIzkiDAN Ongi eutsi nien eror ez ZEKIzkidan Etor zaKIzkidan zer egin behar dut? Etor ZENKIzkidan zer egin behar nuen?
--------------	---	---	--

#### BERRIDAZKETAK:

1. Nirekin ez aspertzeko, hementxe emango dut amaitutzat idazlantxo hau.
2. Esaiozu Karmeleri ere ekartzeko neuri J. M. Irigoienen liburua! (ekar)
3. "Ogi zatitxo bat eman iezadazu". Hori erregutu zidan eskaleak. (eman)
4. Egun bateko epea eman nion Karmeleri lagunei egia aitortzeko. (aitor)
5. Zeuen karguak zuzendaritzaren esku uzteko agindu zitzaizuen azken bileran (...la)
6. Gaizki egin badu, ordaindu besterik ez dauka! (\_\_\_\_\_ordain \_\_\_!)
7. Ea Parker Lewis abentura berriekin etortzen zaigun. Hala izan dadila! (Etor \_\_\_\_\_!)
8. Xabierri gu eskolatik etxera bere autoan ekartzeko eskatu diogu. (ekar)
9. Ez beza orain damu faltsurik ager, ez baitio batere mesederik egingo. (\_\_\_\_...la \_\_\_\_\_ kalterako \_\_\_\_\_)
10. Ordurako etortzeko erregutu genien. (...la)
11. Berehala joateko agindu zidaten. (...la)

### **14 MODU SUBJUNTIBOA**

#### **14.1 ERANTZUNAK: Modu subjuntiboa**

1. Nirekin asper ez zaitezten, hementxe emango dut amaitutzat idazlantxo hau.
2. Esaiozu Karmeleri ere ekar diezadala neuri J. M. Irigoienen liburua!
3. Ogi zatitxo bat eman niezaiola erregutu zidan eskaleak.
4. Egun bateko epea eman nion Karmeleri lagunei egia aitortzeko. (aitor)
5. Zeuen karguak zuzendaritzaren esku utz zenitzatela agindu zitzaizuen azken bileran.
6. Gaizki egin badu, ordain dezala!

[Ainhoa Ezeiza](#)k prestatutako apunteak. Ariketak, berriz, EGAko azterketa ezberdinetan azaldutakoak dira.

EGA prestatzen

Berridazketak lantzeko azalpenak eta ariketak

7. Etor dakigula / bekigu Parker Lewis abentura berriekin!
8. Xabierri gu eskolatik etxera bere autoan ekar gaitzala eskatu diogu.
9. Ez dezala orain damu faltsurik ager, bere kalterako izango baita.
10. Ordurako etor zitezela erregutu genien.
11. Berehala joan nendila /nenkiela agindu zidaten.